EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA LAGUNKOIAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 10ean Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Lagunkoia Udalak bultzatutako plan bat da eta bi asmo nagusi ditu: Donostiako adinduen errealitatea agerraraztea eta balioestea, batetik, eta pertsona hauek hiriko bizitzan bete-betean parte har dezaten aukerak sustatzea, bestetik.

Plan honek adinduak gizarte bizitzan eta hiriko dinamiketan presente egotea eta haien parte hartzea sustatzen du. Bere barnean biltzen ditu hainbat proiektu eta jarduera, helburu orokortzat adinduen bizi kalitatea hobetzea dutenak, adinduek herritar bezala duten ahalmena baliatuz.

Planaren helburuak garatzeko, Donostia Lagunkoia Hiri Planaren dokumentua taxutzen parte hartu dute adinduek, haiei lotutako antolakundeek, enpresek, elkarteek, erakundeek eta udal sailetako arduradunek. Horiek guztiek gogoeta, eztabaida eta eraikuntza kolektiboko ariketa batean lan egin zuten aurreko legegintzaldian, Donostian datozen urteetan aurrera eraman beharreko gaiak, helburuak, estrategiak eta ekintzak identifikatuz, gure hiria toki lagunkoiagoa egite aldera.

Prozesu aberasgarri eta parte-hartzaile hau egiteko, Partaidetza Sailak bi mekanismo finkatu zituen: Egiaztatze eta Baliozkotze Taldea eta lan-kolektiboaren jardunaldi irekia. Esate baterako, 2013ko ekainaren 20an goizez egin zen saio irekian 100 lagun baino gehiagok parte hartu zuten eta 2014-2015ean ere hainbat saio eta ekimen egin ziren talde-eragilearekin.

Baina 2015ean emandako gobernu aldaketak eragina izan zuen Donostia Lagunkoiaren partaidetza ereduan eta talde-eragileak zuen garrantzian. 2016ko apirilaren 16ko Gizarte-ekintzako kontseilu sektorialean zinegotzi ordezkariak 2016ko aurrekontuen aurkezpena egin zuen. Saio berean, Donostia Lagunkoieko talde-promotorean parte hartu duen elkarte bateko ordezkariak hitza eskatu zuen. Pertsona honek zioen aurreko legegintzaldian Donostia Lagunkoian aktiboki parte-hartu zuten hainbat pertsona eta elkarte lekuz kanpo sentitzen hasiak zirela: Udalak ez ziela informazioa helarazten, proiektua geldirik zegoela sumatzen zutela, talde-promotorearen rola aldatu zela, parte-hartze zuzena asko murriztu zela, aurreko legegintzaldian eragileekin zegoen interakzioa eta elkarrizketa eten egin zirela...

Talde eragilearen kexak eta kezkak zirela-eta, 2016ko maiatzaren 16an, honen inguruan galdetu genion zinegotzi ordezkariari. Hark erantzun zuen talde eragileak arrazoia zuela eta

IERK/
CIF
P2007
500X/
TEDR
PE
0172
689
10655
2011-
06

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

ez zela bilerarik egin beraiekin 2015-2016 ikasturtean. Horregatik, eta egoeraren larritasuna kontuan hartuta, aho-batez onartua izan zen honako mozio hau aurkeztu genuen maiatzeko udalbatzarrean:

- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Donostia Lagunkoieko talde-eragilearekin harremanetan jar dadila denbora epe laburrean eta taldearekin partaidetza eredu aktibo bat berrabiaraz dezala.
- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma bat egin dezala 2016-2017 ikasturteari begira, Donostia Lagunkoia garatzeko egingo dituen ekimenak zerrendatuz.

Aurtengo apirileko batzordean Gizarte-ekintzako zinegotzi-ordezkariari esan genion urtebete pasatu dela eta oraingoz ez dugula kronogramaren berri izan, eta Udaleko web orrian begiratzen badugu, badirudi plana 2015eko ekainean amaitu zela. Izan ere, jardueren atalean sartzen bagara, argitaratuta dauden azkenak 2015eko ekainekoak dira. Zinegotzi - ordezkariak arrazoia eman zigun eta azkeneko hilabeteetan egindako ekintzen berri eman zigun.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari legegintzaldi osoan zehar Donostia Lagunkoieko planaren eta ekintzen berri eman diezaiela Udalbatza osatzen duten talde guztiei.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Udaleko web orrian Donostia Lagunkoieko atala eguneratu eta egiten diren jardueren berri eman dezala.
3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari 2017rako hartu dituen udal konpromisoak (kronograma) kontseilu guztietan aurkeztu eta urte amaieran konpromisoen betekizun mailaren inguruko txostena ere aurkez dezala.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

IERK/ CIF P2007 500X/ TEDR PE 0172 00 689 10655 2011- 06